



Kresala

Lanketa didaktikoak



1., 2. ETA 3. KAPITULUAK



ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1.- Zerk ekarri zuen sekulako haize zakarra Arranondo herrira?

2.- Zergatik jausi zen Tramana izeneko emakume lodia?

3.-Zergatik ari ziren eztabaidan ontzi jabe batzuk eta arrantzale zaharrak portuan?

4.-Ekaitza zela eta, zer erabaki zuten arranondotarrek?

5.-Txalupa guztiak itzuli ziren portura?

6.-Non ikusi zuten Sardinarren txalupa?

7.-Nor eta nolakoa zen Anjel?

8.-Zergatik egin zuen negar Mañasik?

9.-Norenak izan ziren elizako aldarearen aurreko bi kandelak?

10.-Nork jartzen zituen ezizenak Arranondon?

11.-Non sartu zen Sardinarren txalupa?

12.-Nork eman zuen haren berri?

13.-Nola jokutzen zuen euskal kostaldeko jendeak larrialdirik gertatuz gero?

14.-Artoberok eta Josepak ezagutzen zuten elkar?



Kresala

Lanketa didaktikoak



GRAMATIKA

“Haizeak kale bazterretako paper eta zakar guztiak arrastaka eta bira-biraka erabili zituen; atea danbadaka itxi zituen...” (1. orrialdean)

“Mañasi negarrez ari zen une hartan.” (6. orrialdean)

“Herrian zeuden gizon eta emakume guztiak itsaso aldera joan ziren arineketan.” (1. orrialdean)

“Ontzi jabe batzuk eta arrantzale zaharrak eztabaidan ari ziren deizalearen lanaz.” (1. orrialdean)

-KA, -(e)Z eta -(E)(T)AN: Maiz gerundioa adierazteko, marka horietaz baliatzen gara, izenetan jarrita: -KA ekintza errepikakorrek adierazteko; -(e)Z *nola?* adierazteko; eta -(E)(T)AN deklinatzen dugu, *zertan?* edo *zer egiten?* galderari erantzuteko.

1. Umea *oihu egiten* hasi zen: _____ hasi zen.
2. Zergatik ari zara *negar egiten?*: _____
3. Ederto pasatzen ari dira, hitz egiten eta barre egiten: _____
4. Eztul egiten eta bueltak ematen eman dut gau osoa: _____
5. Eztabaidatzen ari dira eta ez dira ados jartzen. _____
6. Fededuna denez, kezkatuta dagoenean otoitz egiten hasten da: _____



ESAMOLDEAK

Hainbat esamolde ikusiko ditugu istorioan zehar, ahoz erabiltzen direnak, harridura, haserrea, eta hainbat sentimendu adierazteko aproposak.

-”Ai, ene!” (1. orrialdean)

-”Hau da hau!” (1. orrialdean)

-”Zantar zikin hori!” (1. orrialdean)

-”Non ote daude?” (5. orrialdean)

-”Zer diozu, baina?” (5. orrialdean)

-”Ona da leku hori halako eguraldiarekin!” (5. orrialdean)

-”Bai zera!” (7. orrialdean)

-”Ondo isilik eduki duzu, ba!” (7. orrialdean)

Orain sortu elkarrizketa bat esamolde horiek erabiliz.



Kresala

Lanketa didaktikoak



MINTZAMENA

1.- Baduzu ezizenik? Uste duzu ezizenak jartzeko ohitura galtzen ari dela?

2.-3. kapituluan herritarren arteko elkartasuna aipatzen da. Nolakoak dira, zure ustez, herritarren edo auzokideen arteko harremanak gaur egun?

3.-Azken urteotan hainbat itsasikararen berri izan dugu. Uste duzu gero eta hondamendi natural gehiago gertatuko direla aurrerantzean? Posible izango dugu iragartzea eta segurtasun-neurri egokirik hartzea?



HIZTEGIA

I.- “EKAITZA”

kale bazterrak
zakar
arineketan
ortozik
poto
igarri

apar
erraldoi
ahuldu
maitekiro
estualdi
mailu

izkina
ostean

II.- “ZERESANAK”

mendi hegal
dindilizka
izara
soro
zeresan
upel
errenkada

ostera
iluntze
samur
ukabilkada
trumoi
ilunpe
igaro

saiatu(a)
otoitz egin
lirain
elizkoi
berba egin
ardandegi
amaraun

zahagi
pitxer

III.- “ALBISTE ONAK”

ezizen
mezulari
zaparrada
tente
batel
ohiko



ULERMENA

Esan hurrengo esaldiak egia ala gezurra diren:

1.- Neguan arrantzaleen lana ez zen udan bezain neketsua.

EGIA GEZURRA

2.- Izurdeak saltoka eta kaiok goitik behera ikustean daki talaiariak ur azalean antxoa piloa dagoela.

EGIA GEZURRA

3.-Josepak apaizaren txartel bat eman zion Artoberori, baita ezetza ere.

EGIA GEZURRA

4.-Arranondoko Aste Santuko ospakizunak tradizio handikoak dira, baina ez dira oso ezagunak herritik kanpo.

EGIA GEZURRA

5.-Kostaldeko jaien eta barnealdeko jaien artean ez dago alde handirik.

EGIA GEZURRA

6.-Arranondotarrak fededunak dira, baina ez dira mezatarak joaten.

EGIA GEZURRA

7.-Mañasik ez zuen etxetik irteteko gogo handirik.

EGIA GEZURRA

8.-Zein traineruk irabazi zuen jakin ostean, Josepa eta Mañasi plazara abiatu ziren.

EGIA GEZURRA

9.-Anjelek triste eman zuen estropada-eguna.

EGIA GEZURRA



GRAMATIKA

1.- “Mañasi benetan neska eder eta maitagarria zen. (...) neska apal, zintzo, isil, baketsu eta guztiz bihotz onekoa zen.” (22. orrialdean)

”Josepa (...) bizia, berekoia eta haserrekorra zen.” (22. orrialdean)

”Anjel mutil burutsua eta zentzuduna zen” (24. orrialdean)

ATZIZKIAK: Pertsonen, ideien... izaera edo nolakotasuna adierazten dute hainbat atzizkik, esaterako:

-GARRI: zerbait sortzen duena, egin daitekeena edo egitea merezi duena

-KOR: joera duena

-KOI: joera duena

-TI: joera duena

-TSU: ugaritasuna eransten zaio

-DUN: zerbait daukana



Kresala

Lanketa didaktikoak



Berridatzi esaldi hauek atzizkiak erabiliz:

1. Beldurra ematen duten filmak ez zaizkit batere gustatzen.

2. Gauzak alderik onenetik ikusteko joera du.

Oso pertsona _____ da.

3. Etxean egotea izugarri gustuko dugu.

_____ gara.

4. Lotsa izugarria pasatzen du jendaurrean hitz egitean.

5. Arduraz jokutzen du beti, lanean zein bizitza pribatuan.

6. Enpresako ekonomia saileko buruari idatzi beharko liokete.

2.- Izenondoen (izena nolakoa den -adjetiboa-) eta aditzondoen (nola egiten dugun jarduera bat -adberbioa-) intentsitatea graduatzeko, hainbat era dugu:

- “Arrantzaleen lana beti izaten da neketsua, baina neguan inoiz baino neketsuagoa” (13. orrialdean)
- “Neguan, gu etxeko suaren inguruan bero-bero gauden bitartean (...)” (13. orrialdean)
- “Egunak poliki-poliki luzatu ziren” (13. orrialdean)
- “Antxoaren arrantza guztiz ikusgarria izaten da” (13. orrialdean)
- “Nahiko ondo jakiten dute Kristauen Ikasbidea” (14. orrialdean)

GRADUATZAILEAK:

- Ez da **batere** zaila/Ez dago **batere** pozik
- Astun **samarra** da hori/ Ondo **samar** egin dut
- Nahiko/Aski** merkea zen etxea
- Oso/Sano** polita da leku hori
- Polit-polita** da leku hori
- Izugarri/Ikaragarri** nekatuta amaitu dugu
- Nekatu **baino** nekatuago amaitu dugu
- Orain **askoz (ere)** hobeto sentitzen gara
- Inoiz baino** hobeto sentitzen gara
- Zeharo/Guztiz/Erabat** apurtuta dago



Kresala

Lanketa didaktikoak



Berridatzi esaldi hauek graduatzaileak erabiliz:

1. Era horretako telebista saioak ez zaizkit interesatzen. (*batere*)

2. Kanpina garestia zen, baina bertan geratu ziren. (*samar(ra)*)

3. Lasaiago nago orain. (*askoz ere*)

4. Filmeko efektu bereziak ikusgarriak dira. (*izugarri*)

5. Onartezina iruditzen zaigu egoera hori. (*guztiz*)

6. Berandu helduko naiz bihar. (*samar*)

7. Poz-pozik hartu dugu berria. (*oso*)



ESAMOLDEAK

-“Hori da *eztarria*, hori!” (19. orrialdean)

-”Ez dauka *jakituria* makala *apaiz horrek*...!” (19. orrialdean)

-”*Eztul* bat ere ez du egin!” (19. orrialdean)

-”A zer-nolako *soinu ederrak jo dituzten*!” (19. orrialdean)

-”Noiztik eta hona?” (20. orrialdean)

-”Isilik egongo zara, gangar hori?” (21. orrialdean)

-”Hango jendetza!” (24. orrialdean)

Orain sortu elkarrizketa bat esamolde horiek erabiliz.



Kresala

Lanketa didaktikoak



MINTZAMENA

- 1.-Gustuko dituzu zure herriko jaiak? Herri txikietako jaiak ala hirietakoak?
- 2.-Bilboko Aste Nagusian hartzen duzu parte?
- 3.-Zein ekitaldi duzu gogokoen?
- 4.-“Batzuetan gauza asko lortu nahian irteten gara etxetik eta esku hutsik itzultzen gara”. Inoiz gertatu zaizu horrelakorik?



HIZTEGIA

IV.- “GARIZUMAKO EGUNETAN”

garizuma	eraso	lisatu
neketsu	kaio	soinean
dardar(ka)	talaiari	apal
blai	deiadar(ka)	kedar
igaro	erdibana	
poliki	elizkoi	
txorrotxio	ikasi(a)	
arin	jakituria	
kulunka	ordainez	
azal	elizkizun	
izurde	entzule	

V.- “ATSEDEN ORDUAK”

irabazi	zinegotzi	bapo	jaramon
txahal(a)	ederto	harrikoa egin	gangar
lapikoko(a)	eztarri	zeta	
lukainka	eztul	orratz	
mutur	malda	papar	
opil	oihal	asti	
baseliza	tolestu	enparantza	

VI.- “ATSEDEN ORDUAK ORAINDIK”

maitagarri	berekoi	senide
ugari	haserrekor	aitzakia
leun	errieta	jendetza
lerden	dizdiz(ka)	zalaparta
mamitsu	sakabanatu	burumakur
bolada	eske	biharamun
jauregi	tente	
txiro	sumatu	



Kresala

Lanketa didaktikoak



7., 8. eta 9. kapituluak



ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1.- Zein egun izaten zen handiena jaietan?

2.- Nortzuek gozatu nahi zituzten jaiak azken unera arte?

3.-Herriko mutiko batzuk jolasean zebiltzan hondartzan. Zer zela eta?

4.-Mutikoek bazuten hurrengo egunean ere piper egiteko asmorik?

5.- Zein lan egiten zuten emakumezkoek?

6.- Zer ziren *astodunak*? Zertan zetzan haien lana?

7.-Zergatik hasi ziren eztabaidan Tramana eta Brix?

8.-Zer esan zion Anjelen amak semeari?

9.-Zer zurrumurru zabaldu zen tabernan?

10.-Zer pentsatu zuen Mañasik?



GRAMATIKA

1.-“Gure herrietako jaiak hirukoitzak izaten dira, hau da, hiru egun irauten dute” (26. orrialdean)

-“«Ba, ni ere ez naiz joango(...)» Hala ere, mutikoek bazekiten hurrengo egunean amaren aurretik joan beharko zutela herriko eskolara” (28. orrialdean)

-«Zure bihotzeko atean ez du oraindik inork deitu (...). Horregatik ez duzu inorekin hitz egin» (35. orrialdean)

-“Horretan amaitu zen ama-semeen arteko elkarrizketa. Beraz, Anjelek ez zuen ez baietzik ez ezetzik esan” (36. orrialdean)

LOKAILUAK:

hau da, / Horre(xe)gatik, / Hala (eta guztiz) ere, / Izan ere, / Bestalde, / Beraz, / ,ordea,



Kresala

Lanketa didaktikoak



Berridatzi esaldi hauek lokailuak erabiliz:

1. Nire laguna den arren, ez dut berarekin edozertaz hitz egiteko konfiantzarik.

2. Jonek dio film hori ikusgarria dela; orduan, zinemara joan beharko dugu.

3. Deitu behar diot ahizpari; azkenaldian, kezkatu samar nabil beragatik.

4. Seme-alabak ondo sentituko dira beren ahalegina goraiatzan duzunean, eta beren autoestimua areagotuko da.

5. Gure elikadura zaindu behar dugu; denetarik jan behar dugu, eta gantz kaltegarriak eta azukreak baztertu.

6. Iaz Asiara joan ginen oportetan; aurten hemen geratu beharko gara.

- 2.-“Arazo horretaz jabeturik, herriko agintariak gaueko eskolak sortu zituzten...” (29.orrialdean)
-“Tramanaren hitzak entzunda Brixek bere otzara lurrean utzi, eskuak gerrian ipini eta, inguruko emakumeei begira, esan zuen: ...” (31. orrialdean)

-TA/-DA=-(R)IK: Marka hauek ekintza burutuak adierazten dituzte eta gerundioa adierazteko ere balio dute, bi zentzutan:
-Kausa-ondorioa
-Deborazko zentzuan; aurrekotasuna

Berridatzi esaldi hauek gerundioa erabiliz:

1. Itsasoko nekeak ahaztu eta herriko jaietan murgildu ziren.

2. Ondo ulertu ez dela ikusi duenez, berriro azaltzen saiatu da.

3. Txakurra zuhaitzean lotu ostean tabernara sartu zen.

4. Ariketak bukatu eta gero Ledesmara joango gara.

5. Albiste ona jaso dugunez, jai bat antolatzea erabaki dugu.



Kresala

Lanketa didaktikoak



ESAMOLDEAK

- “Mutil asko neke-neke eginda zeuden” (26. orrialdean)
- “Mutiko batzuk txipli-txapla ari ziren olatuetan” (27. orrialdean)
- “Postura egingo dugu kalatik hona zeinek arinago egin?” (28. orrialdean)
- “Txo, ederra emango dizue maisuak bihar!” (28. orrialdean)
- “Hara!” (32. orrialdean)
- “Min ematen dizu egiak, min?” (32. orrialdean)
- “Pattarra baneraman, ondo neraman, aizu!” (32. orrialdean)
- “Zer diozu zuk?” (35. orrialdean)
- “Halaxe da (...) ederto entzun duzu” (35. orrialdean)



MINTZAMENA

- 1.-Txikitan piper egin ohi zenuen?
- 2.-Nolakoak ziren zure irakasleak? Zein zen zure irakasle kuttuna? Zein ikasgai zenuen gogokoen?
- 3.-Hainbat lanbide desagertu dira azken hamarkadetan. Eman adibide batzuk.
- 4.-Gaur egun, oraindik ere, maitasun erromantikoaren mitoa zabaltzen jarraitzen dute zinemaren bidez, musikaren bidez... Zein iritzi duzu zuk? Zein ondorio ekartzen ditu ideia hori zabaltzeak?



HIZTEGIA

VII.-“LEHENGO BIDETIK”

motel	entzute	postura egin
senide	biharamun	txakur txiki
une	besape	txo
aitzur	otzara	zartailu
zahagi	bare	masail
kirten	hodeiertz	kaiku
galant	piper egin	gaineratu
zentzugabe	txipli-txapla	jabetu
antzar	(praka) barrenak	gatzaga



Kresala

Lanketa didaktikoak



8.-Matxin zaharra ito egin zen.

EGIA

GEZURRA

9.-Egun hartan, itsasoratu aurretik, inork ez zuen gogoratu Antiguako Amari agurmaria esatea.

EGIA

GEZURRA

10.-Kitolis animatzeko, lanean ari ziren mutilak txisteak kontaktzen hasi ziren.

EGIA

GEZURRA



GRAMATIKA

1.-“Hark goizean betiko tokian ikusi zuela esan zuen” (41. orrialdean)

-“Ez zirudien ezer erabakitzeko asmo handirik zuenik” (38. orrialdean)

-“Bazekien zenbat ordu egin behar ziren Arranondotik Cadizera” (40. orrialdean)

-“Anjelek ez zuen oraindik erabaki ezkondu behar zuen ala ez”(38. orrialdean)

-“Ez dakit egia ala gezurra den” (40. orrialdean)

ZEHAR-ESTILOA:

-(e)LA: lotura hau erabiltzen da zehar-estiloan kontaktzen ditugun ideietako aditzak eta baieztoketan dauden *uste izan, pentsatu, esan, jakin, gogoratu, adierazi, azaldu, erantzun...* bezalako aditz nagusiak uztartzeko.

-(e)NIK: lotura hau erabiltzen da zehar estiloan kontaktzen ditugun ideietako aditzak eta ezeztoketan dauden *uste izan, pentsatu, irudi, eman...* bezalako aditz nagusiak uztartzeko.

-(e)N: bai/ez erako galderak eta galdetzailen baten bidez egiten diren galderak zehar estilora pasatzeko beti erabiltzen da lotura hau.

Berridatzi esaldi hauek zehar-estiloan jarritz:

1. Egoera ez da aldatu azken urteotan. Hala adierazi dute azken datuek.

2. Zergatik ibiltzen gara behin eta berriz gai beraren inguruan eztabaidan? Hori galdetu beharko genioke geure buruari.

3. “Etorriko zara?”, galdetu diot. “Saiatuko naiz”, erantzun dit.

4. Ez du berehala atertuko. Ez dirudi behintzat.

5. Nola konpon daiteke kontu hau? Egia esan ez dakigu.

6. Lagunduko diogu! Esaiozu!



Kresala

Lanketa didaktikoak



- 2.-“Bost urte nituela eraman ninduen lehenengoz aitak itsasora” (43. orrialdean)
-“Hiru aldiz egin dut tirabira. Lehenengoan, Arno atzean bixigutan geundela” (43. orrialdean)

-(e)LA(RIK): denbora adierazteko ikusiko dugu gerundio-lotura hau maiz, aditz trinkoetan, batez ere.

Berridatzi esaldi hauek:

1. Aitak 14 urterekin utzi zuen herria.

2. Haiek mendian zeuden euri-zaparrada hasi duenean.

3. Euskaltegirako bidean iazko ikaskide batekin topatu gara.

4. Txikitan izugarri gustatzen zitzaidan zinemara joatea.

5. Metroan zihoan deitu diotenean.



ESAMOLDEAK

- “Koruña non dagoen ere ez dakizu zuk!” (39. orrialdean)
-“Zelan ezetz!” (39. orrialdean)
-“Ni haruntzago ere egon naiz!” (39. orrialdean)
-“Non, gero?” (19. orrialdean)
-“Hamaika arrisku ezagutu ditugu guk!” (40. orrialdean)
-“Ene! Zelan heldu ziren, ba?” (41. orrialdean)
-“Horixe bai gertaera miresgarria!” (41. orrialdean)
-“Baina halako batean, brast, haize bolada gogor batek gure txalupa jo zuen, eta, dzaust, txalupa irauli eta uretara erori ginen denok”(43. orrialdean)
-“A zeinen luzea den gaua!” (44. orrialdean)
-“Egia esan, nik ez dakit zer arraio kantatzen ari diren!” (47. orrialdean)
-“Abadeen kontuak!” (49. orrialdean)

Orain sortu elkarrizketa bat esamolde horiek erabiliz.



Kresala

Lanketa didaktikoak



MINTZAMENA

- 1.-Zein da ezagutu duzun herri edo herrialderik ederrena?
- 2.-Bazara superstiziosoa? Baduzu sineskeriarik?
- 3.-Zer iruditzen zaizu itsasgizonak Indianoari adierazitako ideia hau: “Lan egiteko nik ez dut uste euskarak kalterik egin dizunik, ezta erdarak indar handirik eman dizunik ere”(48.or)?



HIZTEGIA

X.-“ATERPEAN”

kaio	soinean	estu(t)asun
ontzi	kizkur	gertaera
masta	nahaste-borraste	ageri izan
zapaldu	ezjakintasun	hondar
lanbas	entzungor egin	miresgarri
amu	arrisku	jakingarri
soto	irauli	lehorreratu
pasadizo	onik atera	zaindari
agure	babestu	kondaira

XI.- “KITOLIS”

makur	erabili	negar malko
zimurtu	itsasargi	busti
adabaki	askatu	haitz
eskalapoi	ahul	sekula ez
apal	azalera	isilune
tirabira egin	eutsi	tristura
ikaragarri	besterik ezinean	arindu
arraun	bular	
haize bolada	isiltasun	
bizirik iraun	pasarte	

XII.-“BELAR TXARRAK”

armadun	hizkera	harrokeria
galarazi	jakitun	kalte egin
oihal	nahitaez	abade
mutilzahar	aske	ahalegin
luzaroan	gurari	fedea
haserrekor	mendeko	abere
sarritan	makurtu	zirikada
elkartu	eskubide	berrikuntza
berriketan	menderatu	lаторri
jardun	damu	murriztu
atzerri	lurralde	
bururatu	gaineratu	



Kresala

Lanketa didaktikoak



13. , 14. eta 15. kapituluak



ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1.- Nola zetorren Mañasi?

2.- Nola jarri zen Mañasi Anjel ikusi zuenean?

3.-Zer aholku eman zion Mañasik Anjeli?

4.-Zer sentitu zuen Anjelek Mañasirekin?

5.- Zergatik zebilen poz-pozik Antoni Errota?

6.- Zer pentsatzen zuen Anjelek Antoniz?

7.-Zer erabaki zuten Anjelek eta gurasoek?

8.-Zergatik haserretu zen Antoni?

9.-Nora joan zen Mañasi? Zergatik?

10.-Zer idatzi zion Indianoak Mañasiri? Zer erantzion zion emakumeak?



GRAMATIKA

1.-“Geldiro-geldiro igotzen zituen harrizko maila zaharrak, Mañasiri begira” (52. orrialdean)

-“Hizketan hasi ziren herriko gorabeherei buruz eta ez ziren isildu Bilbora heldu arte” (60. orrialdean)

-“Aitak orduan tinko-tinko begiratu zion semeari, azalpenen baten zain” (56. orrialdean)

POSTPOSIZIOAK:

-Zeri begira

-Zeri esker

-Zeri buruz

-Zeren bila

-Zeren zain

-Zeren arabera



Kresala

Lanketa didaktikoak



Berridatzi esaldi hauek postposizioak erabiliz:

1. Euskararen historiaz hitz egiten dute dokumental horretan.

2. Hemen itxarongo dizut!

3. Lagunari begiratu zion eta jakin zuen zer gertatu zitzaion.

4. Irratian esan dutenez, azoka oso jendetsua izan da.

5. Zuengatik oso gustura egon gara.

2.-“Hauxe andre xelebrea! Halakorik esatea ere! -esan zuen Mañasik, barre plantak eginez” (52. orrialdean)
-“Indianoa luzaroan egon zen aurreko etxe hari begira, bere arterako hauxe esanez: «Arrano-arranoa!»” (60. orrialdean)

-“Honetan zeudela, lehen gora joaten ikusi zuten Tramana” (52. orrialdean)

-(e)Z: marka honen bidez gerundioa adierazten da hiru zentzutan:

-bi akzio batera gertatzen direnean

-zerbait lortzeko bidea

-kausa-ondorioa

-T(Z)EN: *ikusi, sumatu, harrapatu, aritu, geratu, gelditu, utzi...* aditzekin batera agertu ohi da gerundio-marka hau.

-TA/-DA=- (R)IK: Marka hauek ekintza burutuak adierazten dituzte eta gerundioa adierazteko ere balio dute, bi zentzutan:

-Kausa-ondorioa

-Deborazko zentzuan: aurrekotasuna

Berridatzi esaldi hauek gerundioa erabiliz:

1. Eskerrak eman eta agur esan digu.

2. Herriko jendeari galdetu diote eta horri esker lortu dute landetxea topatzea.

3. Janari apur bat lapurtu du eta harrapatu dute.



Kresala

Lanketa didaktikoak



4. Jai bat egingo dugu berri onak ospatzeko.

5. Lehen denda horretan egin dituzu erosketak; ikusi zaitut.



ESAMOLDEAK

- “Zer duzu, Anjel?” (51. orrialdean)
- “Hauxe andre xelebrea!” (52. orrialdean)
- “Halakorik esatea ere!” (52. orrialdean)
- “Zaude isilik, mutil!” (52. orrialdean)
- “Benetan diozu?” (53. orrialdean)
- “Ez didazu ezertxo ere esan” (55. orrialdean)
- “Hauxe da ordaina!” (56. orrialdean)
- “Zer berri?” (57. orrialdean)
- “Ez horixe!” (57. orrialdean)
- “Ai txatxala ni!” (59. orrialdean)
- “Hau lotsa!” (59. orrialdean)
- “Zertarako esan zidan, ba, nire lepotik barre egiteko?” (59. orrialdean)
- “Egon apur batean” (60. orrialdean)
- “Arrano-arranoa!” (60. orrialdean)

Orain sortu elkarrizketa bat esamolde horiek erabiliz.



MINTZAMENA

- 1.-Kuxkuxeroa zara? Txutxu-mutxuak gustuko dituzu?
- 2.-Norekin ezkondu, zer ikasketa egin, non egin lan... Lehen gurasoek seme-alaben bizitzaren inguruko erabaki asko hartzen zituzten. Gaur egun askatasun handiagoa dute gazteek? Zer dela eta?
- 3.-Maitasun-gutunik idatzi duzu inoiz? Eta jaso?



Kresala

Lanketa didaktikoak



HIZTEGIA

XIII.-“ELKARREN AURREAN”

gazitu	topo egin	esamesa
polito	alferkeria(n)	berritsukeria
astindu	maila	oraingoz
soto	geldiro	saregile
herren(ka)	erreparatu	zoritxar
ustekabe	eten	

XIV.-“NAHIGABEAK”

erietxe	huts
inbidia	ordain
mutilzahar	estualdi
neskame	gurari
kopetilun	itzel
tinko	
nahigabe	

XIV.-“USTEKABEKO GERTAERAK”

-(r)en lepotik barre egin	elkartasun	lehentasun
zalgurdi	bitartekari	ogerleko
aurrez aurre	lehia	
gorabehera	liskar	
goraintzi	enkante	
aho bete hortz(ekin) utzi/geratu		

16., 17. eta 18. kapituluak



ULERMENA

Esan hurrengo esaldiak egia ala gezurra diren:

- 1.- Mañasiren erantzunak sutan jarri zuen Indianoa, oso gizon erlijiosoa zelako.
EGIA GEZURRA
- 2.- Indianoa Mañasiren guraoen etxera joan zen, Mañasirekin maiteminduta zegoelako.
EGIA GEZURRA
- 3.-Mañasiren guraoek alaba eta Indianoa ezkontzea nahi zuten, On Jose Antonio gizon aberatsa baitzen.
EGIA GEZURRA
- 4.-Joseparen ustez, Indianoa agure ganorabakoa zen.
EGIA GEZURRA



Kresala

Lanketa didaktikoak



5.-Tramanak kontatu zien beste emakumeei Anjel eta Mañasi oso gustura ikusi zituela.

EGIA

GEZURRA

6.-Horrez gain, Tramanak kontatu zien Mañasi eta Indianoaren arteko ezkontzaren zurrumurrua.

EGIA

GEZURRA

7.-Emakumeen iritziz, Indianoa gizon zaharra bezain osasuntsua zen.

EGIA

GEZURRA

8.-Emakumeek gogo barik egin zuten barre Indianoaren lepotik.

EGIA

GEZURRA

9.-Itsasgora dagoenean joaten da Arranondoko jende asko haitzetara.

EGIA

GEZURRA

10.-Indianoa arrantzale ona zen.

EGIA

GEZURRA



GRAMATIKA

1.-“Ni baino zaharragoak ere ezkontzen dira” (63. orrialdean)

“-Lelokeriak ez egiteko esan.

-Bai.

-Jendearen inbidiari jaramonik ez egiteko.

-Baita” (66. orrialdean)

-“Indianoak hitz egiten ere ez daki” (70. orrialdean)

ERE: Aurretik baieztatu edo ukatu den zerbaiti beste zerbait gaineratzeko erabiltzen da.

Aditza agertzen denean bakarrik joaten da, informazio berriaren ostean.

-Oporretan Lapurdira joango gara, eta Behe Nafarroara **ere** joango gara.

-Zu ez bazoaz, ni **ere** ez naiz joango.

Aditza agertzen ez denean, *bai/ez* edo *baita/ezta* partikulak behar ditu.

-Oporretan Lapurdira joango gara, eta Behe Nafarroara **ere bai /baita** Behe Nafarroara **ere**.

-Zu ez bazoaz, ni **ere ez/ ezta** ni **ere**.

Beste elementurik ez badago, posible da *baita/ezta* edo *baita ere/ezta ere* baino ez esatea.

Berridatzi esaldi hauek “ere” partikula erabiliz:

1. Berri Txarrak taldea oso gogoko dut. (*gure amamak*)

2. Entsalada daukagu afaltzeko. (*patata tortilla*)

3. Alainen lagunak ez dute okelarik jaten. (*arrainik*)



Kresala

Lanketa didaktikoak



4. Ane ez dago etxean. (*bere bulegoan*)

5. Nik badakit zergatik haserretu den Jon. (*nola konpondu arazoa*)

6. Udan kostaldera joateko asmoa dugu. (*mendian ibiltzeko asmoa*)

2.-“Gaur goizean Txanogorri berri onak ote dituen galdetu diot” (70. orrialdean)

-“Lehengoan, *muuu* batez agurtu omen zuen Indianoak Tramana” (70. orrialdean)

OMEN (EI bizkaieraz): hiztunak ziurtasunik ez duela adierazteko eta beste bati entzunez jakin duela adierazteko erabiltzen da partikula hau.

OTE: galdera zuzenetan zein zehar-galderetan, zalantza edo susmoa azpimarratzeko erabiltzen da. Partikula hau daramaten galderak erretorikoak izaten dira; hau da, ez dute eskatzen inolako erantzun zehatzik.

Berridatzi esaldi hauek *omen* edo *ote* erabiliz:

1. Auskalo zer ulertu duen horrek.

2. Esan digute jaira mozorrotuta joan behar dugula.

3. Ez daukagu erlojurik eta ezin dugu jakin ordua. Zer galdetzen dugu?

4. Entzun dut film hori oso ona dela.

5. Hedabideen arabera, 30.000 lagun bildu ziren manifestazioan.



ESAMOLDEAK

-“Handia da, gero, arrantzale txiro baten alabak niri ezetza ematea!” (63. orrialdean)

-“Nik badakit non dagoen gaztelu horren alderdi argala, eta handixek sartuko naiz!” (63. orrialdean)

-“Zoro arraioa!” (64. orrialdean)



Kresala

Lanketa didaktikoak



- “Horixe bai dirutza handia” (64. orrialdean)
- “Noiztik eta hona?” (65. orrialdean)
- “Tira, esadazue zein den albiste hori” (65. orrialdean)
- “Egizu kontu!” (65. orrialdean)
- “Den-dena idatzi, gero!” (66. orrialdean)
- “Ai enetxoak!” (69. orrialdean)
- “Zer da, baina?” (69. orrialdean)
- “Txanogorri berri onak ote dituen galdetu diot” (70. orrialdean)
- “Aitaren eta semearen...!” (70. orrialdean)
- “Ikustekoa izango litzateke!” (70. orrialdean)
- “Ixo, ixo!” (70. orrialdean)
- “Ez dauka lan makala Mañasik!” (70. orrialdean)
- “Hobe dugu kontua horretan uztea” (71. orrialdean)



MINTZAMENA

- “Diruak ate guztiak irekitzen ditu”, dio Indianoak. Ados zaude?
- “Nik ez dut ulertzen zelan utzi nahi duten gurasoek beren alaba halako gizonaren eskuetan”, dio Arranondoko emakume batek Mañasiren kontuaren inguruan. Zer deritzozu zuk?
- Gaur egun ligatzeko moduak asko aldatu dira, zure ustez? Nola ligatzen du jendeak egun?



HIZTEGIA

XVI.-“ALDERDI ARGALETIK”

txiro
jakina
gogoeta(n)
abade
txotxolokeria
kozkor

totel(ka)
dirutza
gaineratu
eskabide
lelo(tu)
aurrerantzean

ganorabako
burutsu
bihozgabe
armarri
finkotasun



Kresala

Lanketa didaktikoak



XVII.-“ZURRUMURRUAK”

batu
atso
sumatu
eskutitz
mordo

bildots
erruki
zirikatu
odoloste
gogotik (lan egin)

samur
jaunartze
ozta

XVIII.-“HAITZETAN”

soro
sagasti
gaztainadi
harizti
haitz
sendo
goialde
arrano
bare

txipli-txapla
kulunkatu
zakar
hondatu
zorrotz
latz
zirrikitu
magurio
muskuilu

erantzi
otzara
alferrik
adarra jo
beita

19., 20., 21. eta 22. kapituluak



ULERMENA

Erantzun itzazu ondorengo galderak:

1.- Zertara joan zen Txanogorri, Mañasiren aita, Indianoaren etxera?

2.- Zenbat diru eman zion Indianoak?

3.- Zerk tristatu zuen Anjel? Zertaz konturatu zen?

4.- Zer erabaki zuen Anjelek?

5.- Bere erabakiaz damutu zen?

6.- Zer pentsatzen zuen Anjelek Mañasiz eta bere amaz?

7.- Zer berri jaso zuen Mañasik?



Kresala

Lanketa didaktikoak



8.- Zer aholku eman zion etxeoandreak Mañasiri?

9.- Zer erabaki zuen Mañasik?

10.- Noren aldeko botoa eman zuen Txanogorrik?

11.- Zer dela eta geratu zen bertan behera Anjelen eta Antoniren ezkontza?

12.- Antoni konforme geratu zen?

13.- Zergatik eztabaidatu zuten Indianoak eta Txanogorrik?

14.- Zer dela eta geratu zen bertan behera Mañasik eta Indianoaren ezkontza?

15.- Txanogorriren zorrari eta eraztunari dagokienez, zertan geratu ziren Mañasiren aita eta Indianoa?



GRAMATIKA

1.-“Nire andrea ere argia da” (77. orrialdean)

-“Guri irakurtzen ere ez ziguten irakatsi” (77. orrialdean)

-“Ez dut ezer galduko, laster Mañasik neurea izango delako. Eta txalupa ere bai, noski” (77. orrialdean)

-“Lotsatu ere egiten naiz eta ez dakit nola esan” (76. orrialdean)

ERE (II): Aurretik baieztatu edo ukatu den zerbait beste zerbait gaineratzeko erabiltzen da. Aditza agertzen denean bakarrik joaten da, informazio berriaren ostean. Aditza agertzen ez denean, *bai/ez* edo *baita/ezta* partikulak behar ditu.

Zenbaitetan, elementu berria aditza bera da. Kasu horretan, *egin* partikula erabiltzen da edo aditza errepikatzen da.

-*Atrakzio-parkeak gustatzen zaizkit, baina beldurtu ere egiten naiz bertan/ beldurtu ere beldurtzen naiz.*

Zuzendu esaldi hauek:

1. Batzar hartan erabaki zen ere antena aldatzea.

2. Onartu behar dut ere ideia ona izan dela.



Kresala

Lanketa didaktikoak



3. Aitak gutunak ireki eta irakurtzen zizkion ere.

4. Zuk utzitako pelikulak ikusi ditut eta baita ere gozatu ditut.

5. Ez daki ezta garbigailua jartzen.

6. Ni ere nago pozik gaur.

2.-“Diru gutxi badute, geuk lagunduko diegu” (82. orrialdean)

-“D. Jose Antoniorekin ezkontzen ez bazen, handik aurrera txarto ibiliko ziren” (78. orrialdean)

-“Zuk mila erreal eman ez gero...” (76. orrialdean)

“Lagunduko badizut, nahitaez jakin behar dut nik zer esan dizuten etxeok” (82. orrialdean)

BALDINTZA: bi baldintza mota daude: ez-alegiatzkoak edo errealak eta alegiazkoak edo hipotetikoak. Ez-alegiatzkoak gertatzea oso posible da eta, hortaz, baita ondorioak ere.

-Euria **egiten badu**, blai eginda helduko **gara** etxera.

-Euria **egiten badu**, normalean lagun baten etxean **elkartzen gara**.

-Euria **egin badu**, lokatza egongo da mendian.

Alegiazkoen kasuan, nekez bete daiteke, eta bi mota daude: orain-geroaldikoak eta iraganekoak edo irrealak.

-Euria **egingo balu**, blai eginda helduko **ginateke** etxera.

-Atzo euria **egin (izan) balu**, blai eginda helduko **ginatekeen/ginen** etxera.

-(e)Z GERO / EZEAN=EZIK: egitura hauek edozein baldintza mota adierazteko balio dute *ba-+aditz* laguntzaileak ordezkatzuta, lehena baieztaketan eta bigarrenak ezeztaketan.

-Euria **eginez gero**, blai eginda helduko **gara/ginateke/ginatekeen**.

-Euria **egin ezean**, mendira joango **gara/ginateke/ginatekeen**.

Geroaldiko baldintza: esanahi berezia du, nolabaiteko premia edo guraria adierazten baitu. Ondorioan, bestalde, *behar izan* aditza aurkituko dugu sarritan.

-Erretzeari **utziko badiozu**, ez duzu *tabako gehiago erosi* behar.

-Lasterketan **parte hartuko baduzu**, ondo *entrenatzea komeni izango zaizu*.

Berridatzi esaldi hauek:

1. Loteria tokatuko balitzait, bidaia bat egingo nuke.

2. Haien iritzia aintzat hartu ezean, arazoak izango ditu etorkizunean.

3. Gurekin etorriko bazara, oso goiz altxatu beharko duzu.



Kresala

Lanketa didaktikoak



4. Ikusiz gero, agurtuko zintuzketegun.

5. Konponbidea aurkituko badugu, alderdi guztiekin hitz egitea ezinbestekoa da.



ESAMOLDEAK

- “Hara, jauna” (76. orrialdean)
- “Arraioa!” (77. orrialdean)
- “*Beita* ederra ipini dit, gero!” (77. orrialdean)
- “Huraxe bai gizon jatorra!” (78. orrialdean)
- “Halako gauzarik!” (78. orrialdean)
- “Hain zen ederra!” (78. orrialdean)
- “Zelan ez zen bera lehenago konturatu?” (79. orrialdean)
- “Egingo ote dut bero-beroan?” (79. orrialdean)
- “Hala diote herrian” (79. orrialdean)
- “Behin edo behin!” (79. orrialdean)
- “A zer-nolako albisteak!” (81. orrialdean)
- “Esatea ere!” (81. orrialdean)
- “Hala dirudi” (83. orrialdean)
- “Zer dela eta *bidali dizu*?” (84. orrialdean)
- “Zelako gizon epela zara zu?” (88. orrialdean)
- “Harro hutsak ziren” (91. orrialdean)
- “Nik zera...” (91. orrialdean)
- “Lasaitu ederra hartu zuten” (92. orrialdean)
- “Zer berri dakarzu, jauna?” (92. orrialdean)
- “*Mañasirena* zertan dagoen jakitera nator” (92. orrialdean)



Kresala

Lanketa didaktikoak



- “Gu lehengoan gaude” (92. orrialdean)
- “Eskerrak garaiz jakin dugun!” (93. orrialdean)
- “Ez horixe!” (93. orrialdean)
- “Astokilo halakoa!” (93. orrialdean)

Orain sortu elkarrizketa bat esamolde horiek erabiliz.



MINTZAMENA

- 1.-Estereotipo matxisten artean, emakumeen bihotza biguntzeko modurik onena harribitxiak direla agertzen da hainbatetan oraindik ere. Zer deritzozu horri?
- 2.-Zer debildade duzu zuk?
- 3.-Politika eta erlijioa gai polemikoak izaten dira familia onenetan ere. Zuen familian edo kuadrillan zein gaik sortzen dute tirabira gehien?



HIZTEGIA

XIX.-“BEITA”

beita	okertu	atzerapen
bestalde(a)	borondate	samin(tasun)
bekoki	ukatu	adiskidetu
zimur-zimur eginda (eduki)	gutunontzi	bedeinkatu
eskean joan	pozez gainezka (egon)	
itxurazko(a)	gogoeta(n)	

XX.-“GEROAGO ETA OKERRAGO”

burumakur	nahigabe	pozez zoratu
kopetilun	isileko(a)	kutxatila
damutu	ikara	biharamun
itsutu	gaizkile	jakingura
nazkagarri	hitz eman	patxada(n)
txoriburu	portaera	atzamar
aurreratu	neure burua lotu	egoki-egoki etorri
bigundu	hornitu	
urre	argindar	



Kresala

Lanketa didaktikoak



XXI.-“NAHASTE-BORRASTEAK”

hauteskunde
ordezkari
hautagai
gorroto
nagusitu
mihi
pozoi
hankaz gora egon
jo eta ke ibili
gaiztakeria
berakatz
zapaburu

aingeru
ukabilkada
makilakada
urratu
espetxe
atxilotu
larri-larri ibili
lur jota egon
ardura izan
agintari
zentzudun
itsumen

estutu
negargarri
emankor
zeken
lehor
penagarri
oparo
ugaldu
arrastaka
hondo
traineru
atoiontzi

XXII.-“OTSOAREN BELARRIAK”

bertan behera gelditu
dirudun
gezurti
arrote
atzapar

moldatu
ezkongai
barregarri gelditu
garaiz
askatu

makurtu
saltzaile
totel(ka)
aurrez aurre

23., 24., 25 eta 26. kapituluak



ULERMENA

Esan hurrengo esaldiak egia ala gezurra diren:

1.- Josepa eta Artobero topatu zituen Mañasik Bilboko Zazpikaleetan.

EGIA

GEZURRA

2.- Josepa eta Artobero ezkontzekoak ziren.

EGIA

GEZURRA

3.-Anjelen dibortzioaren berri eman zion Josepak Mañasiri.

EGIA

GEZURRA

4.-Mañasi zoratu samar zegoen.

EGIA

GEZURRA

5.-Ekaitz amorratua sortu zen Arranondon.

EGIA

GEZURRA

6.-Hondamenetik Anjel baino ez zen onik atera.

EGIA

GEZURRA



Kresala

Lanketa didaktikoak



7.-Urte batzuen buruan Mañasik eta Anjelek bi seme izan zituzten.

EGIA

GEZURRA

8.-Txalupa jabeak egin ziren Artobero eta Anjel.

EGIA

GEZURRA

9.-Antoni Indianoarekin ezkondu zen.

EGIA

GEZURRA

10.-Txanogorri alargun geratu zen.

EGIA

GEZURRA



GRAMATIKA

1.-“Bilboko Zazpikaleetan zehar zebiltzan, biok dotore-dotore jantzita eta eskuetan aterki bana zutela” (95. orrialdean)

-“Begiak lausotuta eta eskuak dardarka zituela, albistea irakurtzen hasi zen” (100. orrialdean)

-(e)LA: maiz modua adierazteko erabiltzen da gerundio-marka hau.

-Kapela dotorea jantzita zuela ikusi nuen.

-Pistola bat eskuan zeramala sartu zen dendan.

-Poz-adurra dariola dago.

Askotan aditz laguntzailea ezabatzen da.

-Kapela dotorea jantzita ikusi nuen.

-Pistola bat eskuan sartu zen.

-Poz-adurretan dago.

Zuzendu esaldi hauek:

1. Traje berriarekin agertu zaigu Ander.

2. Negarrarekin begietan agurtu zuen familia.

3. Euria egiten ez badu ere, aterki batekin etorri da.

4. Beti erantzuten duzu irribarre batekin ahoan.

5. Ahoa beteta zeukan. Hala hitz egin die gonbidatuei, lotsatu gabe.

6. Eskuak izerditan neuzkan, eta kostata zabaldu nuen atea.



Kresala

Lanketa didaktikoak



ESAMOLDEAK

- “Ezin hobeak” (95. orrialdean)
- “Benetan diozu?” (96. orrialdean)
- “Bene-benetan” (96. orrialdean)
- “Ez barrerik egin nire lepotik” (96. orrialdean)
- “Noiz egin dizut nik zuri barre?” (96. orrialdean)
- “Eskerrak ematekoa da” (96. orrialdean)
- “Ostera ere?” (96. orrialdean)
- “Pozez zorutzen nago” (96. orrialdean)
- “Zelan izan liteke egia...?” (96. orrialdean)
- “Ikustekoa izan zen!” (96. orrialdean)
- “Hau eguraldi txarra!” (97. orrialdean)
- “Ea egia den” (97. orrialdean)
- “Neska gaixoa!” (101. orrialdean)
- “Aita-edo itoko zitzaion!” (101. orrialdean)
- “Alferrik da orain ezer esatea” (103. orrialdean)
- “Ez dago bera bezalako gizonik” (106. orrialdean)
- “Betiko ez ginen jaio eta...” (107. orrialdean)



MINTZAMENA

- 1.-“Kresala”tik zer da gehien gustatu zaizuna? Eta gutxien?
- 2.-Maitasun-istorioak gustuko dituzu? Zein liburu-mota duzu gogokoen? Eta zein film-mota?



Kresala

Lanketa didaktikoak



HIZTEGIA

XXIII.-“EZKONBERRIAK”

ezkonberri
sendo
erakusleiho
ezagun izan
hutsune
jakingura

gehienbat
eskabide
nahastu
kuzkuzero=
kuxkuxero
itxurak egin

atertu
baimen
trumoi
otzara
latz
zumitz

XXIV.-“HONDAMENA”

hondamen
errukarri
lehenbailehen
ekaitz
amorratu
erruki

olatu
alargun
umezurtz
sarriegi
behartsu
itsumustuan

lausotu
bekoki
mailu
galarrrena
ezbehar
irentsi

XXV.-ELIZKIZUNAK

elizkizun
neure konortera etorri
igarri
mendi hegal
irrintzi(ka)
eutsi

belauniko
zutitu
aldare
hondoratu
ikaragarri

abiada
astakeria
adore eman
bakardade
arrasteko sare

XXVI.-ESKER ONA

gozodun
izara
mutil kozkor
iruzur egin
arkupe
biloba
laino
erantsi